

## DONIBANE ZIBURU, EUSKAL LITERATURAREN ITURRI

*Ziburu, 1991-I-31*

*Piarres Charritton*

Jaun-andereak:

Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiko idazkariorde lagunari erran diodalarik “Donibane Ziburu, Euskal literaturaren iturri” deituko nuela ene gaurko solasaldia, erran orduko dolutu zait, ez baita ordu laurden batez —ordu-laurden bat dut-eta eman izan zaitan epea— horrelako alorra nehondik ere, ez jorratzen ahal, ez eta ere musuikatzen.

Bakarrik erran nahi nuke bederen literatura iturri hori badela; ez baitu iduri deus horrelakorik badenetz ere askok badakiela, hemen gaindi. Eta ez naiz mintzo euskal kulturaz berek deus ez dakitela aitortzen dutenez, baina bai unibertsitatetako literatura departamenduetan euskal literaturaz diharduten batzuek Alta bada, berek diotenez (1) “zientifikotasunez” eta “rigurositatez”(?) mintzo zaizkizu, bai eta “intertestualitateaz”, baina Hegoaren eta Iparraren artean egundainotik Euskal Herrian ezagutu den “interakzioaz” —haiek bezala erraiteko— ez dute deus jakin behar.

Entzun bezate beraz guztiek, zuek jaun-andereok badakizuena, literatura iturri paregabea izan dela hemen eta gaur arte badirauela.

Hor dugu lekuko lehenik Ziburuko Joanes Etcheberri, doktor teologo handia, itsasuntzien planak egiteko bezain trebe zena, mariñelek hain maite zituzten kantu airetan kantika pertsuak milaka ontzeko: Haren “Oi Eguberri gaua!” miragarria kantatzen dugun aldi oroz gogoratzen zaizkigu haren beste *Noelak* (1631) eta Bordelen ere argitaratu zituen *Manuel Devotionezcoa* (1627) eta *Eliçara erabiltceco liburua* (1636).

Hor ditugu ere gogoan, 1619 an, Ziburu Bexiengan jaio eta 1701 ean Paueko jesuitetan hil zen Bernard de Gasteluçar, poeta jakintsua. Honek

---

(1) J. M. LASAGABASTER: “Euskal Literaturaren Azterketa” (1960-1990), *Jakin*, n.º 61.

zuen Pauen argitaratu 1686 an, *Eguia Catholicac* deitu olerki liburua, erakutsiz bere jesuita lagun Jacques Oihenart-i, honen aita Allande Oihenart handiak zenbait urte lehenago sortu nahi izan zuen eskola —batzuk uste zuten bezala, *O.ten gaztaroko* neurtitzekin ez zela ilortu (1657).

Maila apalagoan aipa ditzakegu, mende berean Pedro Dargaignarats, Ziburuko bikario eta predikaria (1641), D'Arambillaga Ziburuko apeza (1684) eta horien inguruan, horien irakurle ta hotsemaile zabiltzan Joanes Heguy, Estebe Hirigoity, Piarres Urtubie, Salvat Dissanetche eta nola ez aipa, orotarik handiena, Donibaneko bikario egon ondoan, Sarako erreter higatu zen Pedro Daguerre Axular (1556-1644), *Geroa*-ren idazle nagusia.

Aitor dugu, protestantismoaren, sorginkeriaren eta muga hauetako gerla ta nahasmendu guzien sendagailu bezala sustatu zituzketela ordu haietan beren apez argituenen literatura lan horiek, Baionako apezpiku izan genituen bi apezpiku euskaldun handiek: Bertrand Etxauz-eko Baigorriarrak (1599-1618) eta geroxago haren iloba Joanes Oltze-ko Iholdiarrak (1641-1686). Ez zen bizkitartean erlijio gaietara mugatzen Donibane Ziburu-ko literatura eskola.

Baziren ordukotz apezak —gaur bezala— politika alorretan sartzeko herabe ez zirenak: hala nola Nafarroako eta Frantziako errege Luis XIV.aren ohoretan eta “Espainolen laidotan” (sic) pertsu zorrotzak kantatu zituen Donibandar apez ezezaguna (2).

Bazuen bestalde Martin de Hoyarzabal Ziburuko kapitain batek itsasoko liburu bat, 1633 an argitaratua, Bordelen, frantsesez, baina zer frantsesez! “L’auteur qui n’est pas français, mais basque des frontières d’Espagne...”, dio inprimitzailak aintzin solasean, barkamendu eskatuz frantses irakurle— Liburu hori euskaraz eman zuen beraz Etcheberri Dorre Zibiburu-ko (sic) beste kapitain batek eta 1677an argitaratu *Ixasoco Nabigacioneco Liburua*-ren izenean, Baionan, Fauvet inprimerian—.

Eta Euskal literaturaren historiari so bat egitea aski da ikusteko Donibane Ziburuko uhaina ez dela, sortzen den XVII. mendean agortzen.

XVIII. mendean Donibanen sortua zen Pierre d’Urte, kaputxino izan ondoan apez protestant bilakatu zena, eta Angeleterrán Bibliaren itzulpena hasirik, beste euskara lan batzuekin utzi dizkiguna (3).

Azkainen sortua zen aldiz, bainan Donibanen erreter bizi izana, Michel Chourio, *Jesu Kristoren Imitazionea*-ren itzulpen aberats baten

(2) PATRI URKIZU: *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798), Durango, 1986, 133. orr.

(3) PATXI URKIZU: “Pierre d’Urteren Hiztegia” (1715), *Mundaiz*, 1989, 1-150. orr.

egilea arrakasta handia izan zuena (1720). Donibandar apezak eta euskal itzultzaileak ditugu berriz, Joanes Haraneder, *Testament Berriaren* lehen itzultzaile katoliko bezala bihar aipatuko dena (4) eta jadaneko *Filotea*-ren (1749) eta *Gudu Izpituuala*-ren (1750) argitaratzaile ezaguna geneukana; Alexandre Mihura, *Andre Dena Mariaren Imitazionea* itzuli zuena (1778); Jean Robin (1738-1821), "*Birjinia*" deitu itzulpenaren eta menturaz beste esku-izkribu zenbaiten egile aria; Bernard Larreguy († 1793) *Testamen çaharreco eta berrico historiao*, eragin handiko liburua gure literaturan, Baionan argitaratu zuena (1775-1777).

Erran behar da bestalde idazle horietarik, batzuk bederen, bazekitela ere pertsu edo neurtitz eder edo polliten itzulikatzen: Ezagunak dira Larreguy apezak idatzi omen zituen *D'Estaing jaun kontearen laudorioak*, nola *Cantico Izpituual* zenbait, bai eta Robin-ek Donibane Zubiburu-ko Andren apainduren eta ere Eskara bastartaren jorrazeko antolatu zituen kantauk (5).

Izen bat edo beste sar genezake oraino hemen, hala nola Salvat Monho apezarena (1749-1821), nahiz sortzez Isturiztarra zen, denek Donibandar baitzeukaten; hemen hazia izan zelakotz (6) edo Jean Baptiste Ducos medikuarena (1743-1828), hau berriz behin Frantziako Iraultzaren alde pertsuak egin ondoan, eta Donibaneko auzapez ere hautatua izanagatik, kargua utzi behar izan baitzuen, eta bizia bera ere galtzer; geroxago ordea W. Humboldt prusiar jakintsu famatuarekin harremanetan izan zen, eta Lapurdiko euskara goxoaren berri eman omen zion jaun horri (7).

XIX. mendean, agertzen zaigun lehen euskal idazlearen izena, inguru hauetan, Ziburuko seme, Jean Baptiste Camoussarry-Mourguy (1815-1842) poetarena da, zalantzarik gabe. Pocalette karrikako 117 ean sortua zen, 1815.eko otsailaren 17an, eta ondoko apirilean, aita Martin ito zitzaion, bere bi arrantzale lagunekin, Zokoa-ko itsasondoan. Gure umezurtza 23 urtekin apeztu zen, eta Larresoron irakasle, behin, Donibane Garazin gero bikario, doi-doi bizpalau urte iragan ondoan, eri handi itzuli zen amaren ganat, Zibururat, eta hemen hil, 27 urtetan. Bere eskuz idatzitako olerki erromantiko asko utzi zituen hiltzean, gaur arte argitaratu ez direnak (8); baina Larresoron irakasle-ikasle ainitzek kopiatzen ohi zituztelakotz, Zalduby, Elissamburu eta beste olerkari frankorentzat eredu bilakatu ziren.

(4) PATXI ALTUNA: *Jesu Christoren Evangelio Saindua*, J. de Haraneder, Euskaltzaindia, 1990.

(5) PATXI URKIZU: *Bertso zahar...*, op. cit., 106 y 122. orr.

(6) PIERRE LAFITTE: "Poèmes Basques de Salvat Monho" (1749- 1821), *Ikas*, 1972.

(7) JULIO DE URQUIJO: "Versos al Dr. Ducos", *RIEB*, 1924, 372-375.

(8) GUADALUPE ARTOLA: "Jean Baptiste Camoussarry" (1815-1845), *ASJU* XXII-2, 1988, 391-444.

Larresororen aipamen horrek ordea, gogoratzen digu, beste Ziburutar bat aurkitu zuela Camoussarry-k hango seminarioan; buruzagi bezala lanegin zuena, 1834 tik 1850 rat, Etienne Haramboure apez, 1799 an, Ziburuko iturri zaharraren antzineko etxean sortua, gero Hazparneko misionesteian predikari handi fama biltzen zuelarik, euskara liburu bat bederen bazuen, gazte-gazterik, Baionan berak argitaratua, *Egun Ona* zeritzana (1829). Larresoron buru zelarik, badakigu, Gratien Adéma Zalduby-k erranik, ez zuela Harambourek beldurrik izan, besta egun batez, Jose Mari Iparragirre bera Baionara ihesliar etorria, seminarioko ikasleen aintzinean kantuz artzerat gonbidatzeko (9). Larresorotik landa berriz, Baionako bikario general egon zelarik, eta hil arte —1852-1869—, ez zuen ez Harambourek bere euskaltzaleasuna ukatu, eta Abbadie, Dassance, Harriet, Goyhetché, orduko euskaltzaleekin zebilela, honela goraiatzén zuen bera Martin Hiribarren (1810-1866) Azkaindar poetak:

“Haramburu da izar beti ageria;  
Ez ditu gastaturen zeruko dohainak,  
Hautatuz kasik oro bildu dituenak:  
Maiestatearekin mihiko grazia,  
Eta jakitatea, guzien garaia.” (10)

XIX. mende beraren ondarrean bada, hemengo zubiaren beste buruan agertzen zaizkigu oraino beste zenbait euskaltzale, hala nola Donibaneko bi auzapez, bat Martin Guilbeau (1839-1912) Urruñar mediku “gorria”, bestea Albert Goyeneche (1848-1900) Donibandar mediku “xuria” eta biak zein euskaltzaleagoak. Eta azkenik aipatu behar dugu —orain arte gehiegi itzalean utzia izan delakotz ere— Pierre Harispe (1854-1929). Donibaneko seme hori apez gazte zelarik Donostiako Jose Manterola-rekin (1849-1884) harremanetan izan zen eta *Euskal Erria* aldizkarian euskal idazki asko argitaratu zuen, bai prosa bai olerki; *Karmela* adibidez. Baina geroago bizipidez aldatu zen, Euskal Herritik urrundu, eta Paris aldean idazle ezagun bilakatu; frantses idazle ordea, artetik euskal gaiak erabilirik ere (11).

XX. mende honetan sartuz geroz, eta iragan mende ondarrean, Ziburuko xantrea, Haramboure, hau ere, Baigorriko xantre Piarres Dibarrart-ekin zein gehiagoka pertsutan ari zenez geroztik, aitortu behar dugu Donibane Ziburuko euskal iturri oparoa agortu zaigula, iduriz. Baina ez da beti behar fidatu itxurari. Ez du oraino hain aspaldi, hortxe berean, Zokoako apezetxean, bizi genuela gure euskaltzainkide azkaindarra,

(9) CHARLES BERNADOU: *Azpeitia, Les Fêtes de 1893*, Bayonne, 1894, 72-73.

(10) MARTIN HIRIBARREN: *Eskaldunak*, 1853, 135, orr.

(11) PIERRE CHARRITTON: *Iparraldeko Bertsolari eta Olerkariak, XIX. mendean*, Labayru Ikastegia, 1990, 78-80.

Piarres Larzabal zena (1915-1987) eta salatuko dizuet haren obra nasaia-  
ren lehen bi tomoak agian argitaratuko ditugula bazko irian. Besterik ez,  
egungotz, Larzabalez. Baina ez ote dugu ere hemen gutartean, Jainkoari  
esker, beste Donibandar idazle handi bat, 1920 an, Errepublikaren karri-  
kan, edo hor hurbil, sortua, eta oraingotz bere *Biziaren Olerkia*-ri esker,  
euskal literaturaren historian kapitulu ederra irabazia duena, hots Ganix  
Diharce "Iratzeder" adixkidea? Eta nork daki ez ote den jadanik itsas  
bazter honetan jaioa, datorren mendean kapitulu berri bat idatziko duen  
Donibane Ziburuko seme edo alaba ezezaguna? Zergatik ez?

Ez dugu bada oraino aipatu, zertako garen gaur hemen, Ziburun  
hemen garen euskaltzaleok elkarretaratzen. Oroitarazi behar dizuet beraz,  
orai duela gaur xuxen ehun urte, 1891eko urtarrilaren 31an, hortxe,  
etxe-gibelean, La Fontaine deitu karrikako 2.ean, hil zela Jean Duvoi-  
sin, 81 urteko literatura gizon handia: *Homme de Lettres*, ez kapitain ez  
beste deusik, diote alabainan ezarri, soil soilik, Ezpeletako Elizalde Zaha-  
rrea deitzen den haren amaren etxearen ondoan datzan hobiaren hil  
harriaren gainean.

Iratzederrek aipatuko dizue, ene ondotik, J. Duvoisin-en lan nagusia,  
Bibliaren itzulpena, nik orai gogoratuko dizkizuet bakarrik haren beste  
lanak, eta erranen dizuet laburzki zer itxura zuen gizon langile handi  
horrek.

Lehenik uste dut Duvoisin gizona bera soberasko itzalean daukatela  
historiari batzuek: Ez zen gizona bakarrik izigarri langilea, bainan ingura-  
menarekin ttipidanik aski bihurria izana gatik, iduriz, Jean Duvoisin zinez  
gizon argia, apala, eta sineste handikoa zen.

Haren familia aipu delarik, maiz haren anaia César Duvoisin kalon-  
jea (1805-1869) goretzi ohi da, zuzen den bezala; nik hasteko ez baitut  
ezagutzen gure Euskal Herrian biografia ainitzik, J. Daguerre, Larreso-  
roko seminarioaren sortzaile ta lehen buruzagiaz († 1785) Duvoisin kalon-  
jeak, 1863 an Baionan, argitaratu zuena bezain aberatsik.

Baina oroit gaitezen ere J. Duvoisin-en ama, Jana Mari Gorostar-  
sou Ezpeleta Elizaldeko alaba zela eta honen izeba mutxurdinak Fran-  
tziako Iraultza denboran fedearen zaindari suhar —beharrez apezan aur-  
ka, agertu zirela. Gehiago oraino, andere horien aitak, hots Jean eta  
César Duvoisin— en aitonak, Jean de Gorostarsou Ezpeletako Batezko  
jujeak lepoa mozturik izan zuen Baionan, 1794ko martxoaren 11an. Eta  
sute baten ondorioz auziaren paperak erre baziren ere Paueko artxibate-  
gietan, Gorostarsou familiak, Landesetan aintzinagotik zeukan etxondoko  
sala batean zaindu izan du artoski sententziaren kopia: Baizik-eta Jean  
Gorostarsou, Ezpeletako Bakezko jujea, 39 urtekoa, bahitu dizkioten  
paperek salatzen duten bezala —ihesi joan apezan euskarazko eta frantse-  
sezko gutun batzu badira, bai eta ere Iraultzaren aurkako euskal kantua—

gaiztagin izigarri bat dela. Munduteguy jauna buru duen auzitegiak hiltzera kondenatzen du, delako gaiztagina eta manatzen, berehala eho dezaten, "Askatasunaren plaza gainean" (sic), Frantziako Errepublika, bat eta zatiezinarenean, II. urtean, Haizetsu hilabeteko 24 ean (12). Ez da beraz harritzeko gure Duvoisin-ek ez baditu behinere ontzat hartu ahal izan bere garaiko Augustin Chaho edo Jean Baptiste Elissamburu bezalako errepublikazale batzuen ideia "demagogikoak".

Honetaraz geroz aipatu behar dugu ere, aitona beraren ilobaso bat, Jean de Gorostarsou hau ere (1829-1868) eta Duvoisin-en senide hurbila. Apeztu-eta Hiribarren-en bikario Bardozen egon ondoan, eta gero Donapaulen, handik Erromara joan zen, eta jarraian Parisera, baina Parisetik eri handi itzuli zen etxekoetara, Senpere Azpeltzera, eta gazterik hor hil. Anartean bada, bazituen euskal olerki eder zenbait ontuak, dohain aberatsaren lekuko dauzkagunak, hala nola izenorde batekin Lore jokoetara, 1859 an, Erromatik igorri zuen Orhiko xoria (13), eta ere, gure ustez, 1862 an aipamen bat izan zuen Desesperantza.

Horiek hola, argi dago, etxetik beretik, eta etxekoetarik, izan zukeela Jean Duvoisin-ek, euskal letren munduan goizik eta barna ibiltzeko lehia. Berak aitortzen zuen gazterik hasia zela grekotik, frantsesetik edo espainoletik euskarala itzulpenak egiten, Demosthene, Fénelon, Lamennais edo Cervantes-en obrak hautatuz.

Baina gero zahartzeari, bere *Liburu ederra* (1856), *Laborantzako liburu* (1858) *Biblea* (1865) eta *Baigorriko zazpi liliak* (1832) idatzi-ta, zergatik etorri ote zen Zibururat, Iturri-zaharreko karrika buruan azken urteen iragaiterat? Berak salatu digu, Arrese Beitia bizkaitar olerkari adiskideari idazten diolarik, 1882 ko uztailaren 6an, "emaztea galdurik, haurrak barraiaturik, Baionako katedralearen itzalean daukan bizitegian ez duela gehiago bere burua jasaten ahal". Orduan menturaz —hau nik asmatzen dut— Donibane Ziburu aldean kapitain bezala iragan zituen adin gordineko urte ederrez oroitu da eta hemen pausalekua finkatzeko xedea hartu du.

Haste hartan ez zion osagarriak kausitu, eta 1883an, berriz idatzi zion honela Arrese-ri: "ohean etzana, hatsik ezin hartuz, bi hilabete sukarrarekin egon naiz". Bizkitartean hona non, 1887ko martxoan, erretor berri bat etortzen den Zibururat. Pierre Haristoy (1833-1901) Aihertar 54 urteko apez historialari eta euskaltzalea. Duvoisin-ek ez du oraino idatziz baizik ezagutzen, baina biek hain ongi elkar hartuko dute non, bere ordenuan, gure euskal idazleak, paper guziak —5000 orrialdez gora— utziko bait dizkio jaun erretorari; honek, jabea hil-eta, 1891ko

(12) MIGEL DE GOROSTARZU: *Thesaurus Nortonensis I*, 96. orr.

(13) P. CHARRITTON: *Iparraldeko...*, op. cit., 70-74.

urtarrilaren 31an, argitaratuko du lehenik Akizen erdaraz, kapitainaren biografia zehatz bat, haren paperen xehetasun guzietan; geroago, 1895 ean, Donostiako *Euskal Erria* aldizkarian agertuko den testu hura bera. Bestalde Haristoy-ek, J.B. Daranatz, bere bikariaren laguntzarekin argitaratuko ditu bere adiskide zenaren *Imitazionea* eta *Ebangelio Saindua*. Gaineratikoak eroriko dira Haristoy hil-eta, Victor Dubarat (1855-1939) historialariaren eskuetara, eta azkenik itzulian, J.B. Daranatz (1870-1945) kalonjearen bitartez, Baionako Erakustokirat eta herri-liburutegirat.

Duvoisin-en eskuskribuetako parte handia argitaratu egin da nolazpait XX. mende honetan: haren gutundegia, adibidez, Daranatzek argitaratu zuen zatika, *Revue Internationale des Etudes Basques* delako aldizkarian, 1928, 1929, 1930 ean. Patri Urkizu adiskideari esker, Elkar argitaldaria berriki eskaini digu *Telemake* (1988). Bizkitartean gure iduriko, bai euskal gramatikariek bai literatura kritikariek badute oraino zer bila eta zer iker, Duvoisin-en idazkietan. Eta oroz gainera Euskal Herriak nahi balu bere seme argi eta suhar honen mendeurrena ospatu hartze duen bezala, bi liburu balituzke berehala argitaratzeko, Baionako Erakustokian lo dauden J. Duvoisin-en *Kantutegia*, eta haren *Euskal Hiztegia*.

Badugu orain Iparraldean Euskal Kultura Erakundea, ohartuko ahal da argitarapen politikarik gabe ez dela ez hemen ez nehon kultura politika egiazkorik. Agian!